# GR 120
# INAZIOTAR BIDEA EUSKADIN
## EL CAMINO IGNACIANO EN EUSKADI




## GOMENDIOAK
## RECOMENDACIONES

Planifikatu hurrengo eguneko etapa: lo egiteko leku asko udan bakarrik irekitzen dituzte, aldez aurretik erreserbatu.

Komeni da ibilbide bakarrik ez egitea.

Ez ahaztu dokumentazioa, kredentziala eta dirua –edo kreditu-txartela–, eta kontu handia izan baliozko objektuekin.

Eraman etapa bakoitzerako janari eta edari nahikoa eta larrialdietako botika-kutxa.

Eraman oinetako eta arropa egokiak, eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta.

Komeni da mugikorraren bateria ongi beteta eramatea.

Jarri arreta: zenbaitetan gezi laranjak aurkituko dituzu, seinaleztapen ofizialarekin bat ez datozenak.

Errespetatu ingurunea eta gainerako ibiltariak.

*Planifica la etapa del día siguiente: Muchos alojamientos sólo abren en verano, reserva con antelación.*

*Es aconsejable realizar el recorrido en compañía.*

*No olvides documentación, credencial y dinero –o tarjeta de crédito- y ten cuidado con los objetos de valor.*

*Lleva comida y bebida suficiente para cada etapa y botiquín de urgencia.*

*Lleva calzado y ropa adecuado teniendo en cuenta la predicción del tiempo.*

*Es aconsejable llevar la batería del móvil bien cargada.*

*Presta atención: en ocasiones encontrarás flechas naranjas que no coinciden con la señalización oficial.*

*Respeta el entorno y a los demás senderistas.*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Arantzazuko Amaren santutegia artearen eta espiritualtasunaren gune da, eta euskal artista ezagunenek egindako arte-ondare garrantzitsua ikus dezakegu bertan. Santutegiari agur esan, eta etapa berri honek zirrara handiak biziaraziko dizkigu.

Gipuzkoatik Arabara igaroko gara, eta Done Jakueren barnealdeko bidearen ibilbidea zeharka gurutzatuko dugu. Aizkorri Aratz parke naturalean gaude; kareharrizko harkaitza da nagusi eta bereizgarri garrantzitsuenen artean paisaia eta sortutako formak aipatuko ditugu.Etapa jaitsiera batekin amaitzen da; Araia herrira iritsiko gara, Aratzeko haitzen azpialdean. Amamioko San Joan ermitak (estilo erromanikoa) edo San Pedro eliza ikus daitezke. Ia derrigorrezkoa da, halaber, Idiazabal jatorri-deiturako gaztak dastatzea.

*Nos despedimos del Santuario de Nuestra Señora de Arantzazu, centro de arte y espiritualidad imprescindible, donde podremos admirar un importante patrimonio artístico realizado por los más notables artistas vascos.*

*La etapa nos deparará fuertes emociones. Pasaremos de Gipuzkoa a Álava y cruzaremos transversalmente el recorrido del Camino de Santiago del interior. Estamos en el Parque Natural de Aizkorri-Aratz, el predominio de la roca caliza es muy notorio y, tanto el paisaje como las formas generadas, son algunos de sus principales rasgos.El final de etapa es un descenso que nos acercará hasta la localidad de Araia, localizada al pie de las peñas de Aratz. Allí podremos visitar las ermitas de San Juan de Amamio, de estilo románico, o la Iglesia de San Pedro. Casi obligado es degustar los quesos de denominación de origen Idiazabal.*

15,9 km | 656 m | 5h 50’ | MIDE 2-2-3-3




| | | |
|---|---|---|
| 2 | Arrisku faktore bat baino gehiago dago | *Hay más de un factor de riesgo* |
| 2 | Bidexkak edo jarraibidea adierazten duten seinaleak | *Sendas o señalización que indica la continuidad* |
| 3 | Koskadun bidezidor edo zoru irregularreko ibilaldia | *Marcha por sendas escalonadas o terrenos irregulares* |
| 3 | 3 ordutik 6ra bitarteko ibilaldia gelditu gabe | *De 3 a 6 horas de marcha efectiva* |

**GR 120**
Homologazio-data: 2016
*Fecha de homologación: 2016*

Gipuzkoako Mendizale Federazioa
Arabako Mendizale Federazioa

# Bidezatia / *Tramo*
## ARANTZAZU > PORTUZARRA / ALTO DE LA HORCA

km 0 ······ **ARANTZAZU**. Santutegiaren atzealdeko bidetik abiatuko gara Urbiarantz, GR 121, GR 282 eta GR 283 ibilbideekin bat eginik. Pagadi eder batetik igoko gara, eta bidearen erdialdean Erroitiko iturriarekin egingo dugu topo. Kondairaren arabera, bertan agertu zitzaion Arantzazuko Ama Birjina Rodrigo Baltzategi artzainari. Oraindik desnibel txiki bat gainditu beharko dugu Urbiako zelaietara iristeko. Bertan, Andre Maria ermitak egingo digu ongietorria. Ermitaren atzean dagoen Urbiako fondan, atseden hartzeko eta Aizkorriko mendilerro pikoaren ikuspegiaz gozatzeko aukera izango dugu.

km 4,5 ······ **URBIA**. Lazkaolatzako txaboletarantz jarraituko dugu elementu megalitikoz betetako bide batetik, eta Perusaroiko aterpea alde batean utzi ondoren, Pagarratera iritsiko gara. GR 12 ibilbideak bat egingo du gurekin bertan. Pago artean jarraituko dugu, eta GR ibilbideen markak utzi gabe, pista batekin egingo dugu topo bi aldiz. Linategieta eta Peazuloeta parajeak utzi ondoren, Portuzarrara iritsiko gara, eta barnealdeko Donejakue Bidea gurutzatu eta agur esango diegu mendiko ibilbide luzeko gainerako bide guztiei.

km 0 ······ ***ARANTZAZU.*** *Partimos del camino que sale tras el Santuario en dirección a Urbia con el GR 121, GR 282 y GR 283 como compañeros de viaje. Ascendemos por un hermoso hayedo y a mitad de camino topamos con la fuente de Erroiti, donde según cuenta la leyenda, se le apareció la Virgen de Arantzazu al pastor Rodrigo de Baltzategi. Todavía tenemos que superar unos metros de desnivel para llegar a las campas de Urbia, donde la ermita de Andra Maria nos da la bienvenida. Tras ésta se encuentra la fonda de Urbia, donde podemos tomar un descanso y disfrutar de las vistas de la abrupta sierra de Aizkorri.*

km 4,5 ······ ***URBIA***. *Continuamos hacia las txabolas de Lazkaolatza por un camino jalonado por elementos megalíticos y tras dejar a un lado el refugio de Perusaroi, llegamos a Pagarrate, donde se incorporan a nuestro camino el GR 12. Proseguimos entre hayas, y sin perder de vista las marcas de GR nos toparemos con una pista en dos ocasiones. Tras superar los parajes de Linategieta y Peazuloeta llegaremos a Portuzarra, donde nos cruzamos con el Camino de Santiago del Interior y decimos adiós al resto de senderos de Gran Recorrido que hasta ahora nos acompañaban.*

KMZ

Inaziotar Bidea
Camino Ignaciano
Camí Ignasià
Camiño Ignaciano

GPX







ARANTZAZU Km. 0 — URBIA Km. 4,5 — PORTUZARRA ALTO DE LA HORCA Km. 9,6

# EZ GERATU EZAGUTU GABE!
## ¡NO TE LO PIERDAS!



Aizkorri-Aratz Parke Naturala gune babestua da. 1994. urtean katalogatu zuten horrela, eta Europako Natura 2000 Sarean sartuta dago. Parke Naturalaren barruan, Euskadiko pagadirik handienetako bat dago, eta fauna- eta flora-biodibertsitate handia bizi da bertan. Espezieen artean, batzuk mehatxupean daude (sai zuria, adibidez).

Araian, Mitxarro museoa dago, eta bertan dago Parke Naturaleko Parketxea.

*El Parque Natural de Aizkorri-Aratz es un espacio protegido catalogado como tal en 1994 e incluido en la Red Natura 2000 europea. Alberga una de las mayores masas de hayedo de Euskadi, que dan cobijo a una gran biodiversidad de fauna y flora, entre la que se encuentran varias especies amenazadas como el alimoche.*

*En Araia se encuentra el museo Mitxarro, que alberga el Parketxe del Parque Natural.*



Marutegi gaztelua izen bereko harkaitz-gailur txikian eraiki zen VIII. mendean, eta San Adriango galtzadako pasagunea zaintzeko erabili zen. Gaur egun, aurriak baino ez dira geratzen, eta ez da komeni igotzen saiatzea, oso arriskutsua baita.

*Construido en el s. VIII en la pequeña cumbre rocosa de Marutegi, el castillo del mismo nombre servía para custodiar el paso de la calzada de San Adrián.*

*Hoy en día sólo se distinguen las ruinas, a las cuales no se aconseja subir por la peligrosidad que entraña el acceso.*



Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren hegoaldean kokatuta dagoen Araiako Mikologia Parkean, aukera handia dago askotariko perretxikoak biltzeko, baina baimena behar da, baso preziatu horien aprobetxamendua mugatzeko.

*En el Parque micológico de Araia, al sur del Parque Natural de Aizkorri-Aratz, podemos encontrar una gran variedad micológica, pero se necesita autorización para su recolección, con el fin de limitar el aprovechamiento de estos valiosos bosques.*

# TELEFONO INTERESGARRIAK
## TELÉFONOS DE INTERÉS

| | |
|---|---|
| Debagoienako Informazio Zentroa (Arantzazu)<br>*Centro de Información de Debagoiena (Arantzazu)* | 943 71 89 11<br>943 79 64 63 |
| Arabako Lautadako Turismo Bulegoa (Agurain/Salvatierra)<br>*Oficina de Turismo de la Llanada Alavesa (Agurain/Salvatierra)* | 945 302 931 |
| Oñatiko Turismo Bulegoa<br>*Oficina de Turismo de Oñati* | 943 78 34 53 |
| Aizkorri-Aratzeko Parketxea (Araia)<br>*Parketxe de Aizkorri-Aratz (Araia)* | 646 478 812 |
| Larrialdiak<br>*Emergencias* | 112 SOS DEIAK |

# Bidezatia / *Tramo*
## PORTUZARRA / ALTO DE LA HORCA > ARAIA

km 9,6 **PORTUZARRA**. Arabako lurretan sartuta, Gorozotxo eta Arlabango parajeak zeharkatu eta Askasaroi izeneko zelai bereziaren erdian dagoen "begiokerraren bordara" iritsiko gara berehala.

km 11 **ASKASAROI**. Karstean egindako bide nahasitik jaisten hasi, eta Iturriotzeko iturrira iritsiko gara bide samurrago batetik. Tarte batzuetan ikusezin bihurtzen den pista batetik jarraituko dugu, eta GR 25 ibilbidearekin bat egin aurretik, Marutegi gazteluaren silueta ikusiko dugu gure eskuinaldean.

km 13,7 **SAN MIGEL**. Handik metro batzuetara, San Migel mendiaren parean, GR 25 ibilbidea utzi eta "bagoneten aldapatik" jaitsiko gara, non, antzina, minerala jaisten zuten minerala maldan behera oraindik zutik dirauen Ajuria fabrikaraino.

km 14,8 **FÁBRICA DE AJURIA**. Araian sartuko gara Salsamendi kaletik. Ondoren, Askazubizar eta Marmario kaleetatik jarraitu, eta San Pedro elizan amaituko dugu etapa.

km 9,6 ***ALTO DE LA HORCA.*** *Entramos ahora en tierras alavesas y atravesamos los parajes de Gorozotxo y Arlaban y enseguida alcanzamos la "txabola del tuerto" en medio de la inconfundible campa de Askasaroi.*

km 11 ***ASKASAROI.*** *Comenzamos a descender por un intrincado sendero en el karst y pronto llegamos a la fuente de Iturriotz por un camino más amable. Continuamos por una pista que se desdibuja en algunos tramos y antes de enlazar con el GR 25, podemos observar la silueta del Castillo de Marutegi a nuestra derecha.*

km 13,7 ***SAN MIGEL.*** *Unos metros más adelante, a la par del monte San Miguel abandonamos el GR 25 para descender por la "cuesta de las vagonetas", por donde antiguamente bajaban el mineral hasta la fábrica de Ajuria, que todavía se conserva en pie.*

km 14,8 ***FÁBRICA DE AJURIA.*** *Nos adentramos en Araia por la calle Salsamendi. Continuamos por las calles Askazubizar y Marmario para finalizar la etapa en la iglesia de San Pedro.*

www.euskaditurismo.eus

# KONTUAN HARTU BEHARREKOAK
## A TENER EN CUENTA

• Bidearen etapa hau mendiko ibilbide bat denez gero, komeni da kantinplora ongi betetzea eta egun hodeitsu edo euritsuetan etapa ez egitea. Zatirik handiena Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren barruan egiten da. Errespetatu ingurunea, eta ez atera markatuta dauden bideetatik.

• *Esta etapa del camino es un itinerario de montaña, por lo que es conveniente llenar bien la cantimplora y evitar realizarla en días con niebla o lluvia. La mayor parte discurre dentro del Parque Natural de Aizkorri-Aratz; respeta el entorno y no te salgas de los caminos marcados.*

• Adi egon seinaleei, Inaziotar Bidea hainbat bide homologatutatik baitoa tarte askotan:
GR 12: EHko isurialdeen banalerroaren zeharkaldia
GR 121: Gipuzkoako bira
GR 25: Arabako Lautadako bira
GR 282: Artzaintza Naturbidea
GR 283: Gaztaren ibilbidea

• *Presta atención a la señalización, ya que el Camino Ignaciano coincide en muchos tramos con varios senderos homologados:*
*GR 12: Travesía de la divisoria de aguas de EH*
*GR 121: Vuelta a Gipuzkoa*
*GR 25: Vuelta a la Llanada Alavesa*
*GR 282: Senda del Pastoreo*
*GR 283: Ruta del Queso*

• Urbiako fondan, maiatzaren amaieratik azaroaren 1era baino ez dago lo egiteko aukera, eta komeni da aldez aurretik deitzea, erreserba egiteko (943 78 13 16).

• *Sólo es posible pernoctar en la fonda de Urbia desde finales de mayo hasta el 1 de noviembre y es aconsejable llamar con antelación para reservar. (943 78 13 16).*

• Araiako frontoian (estalita) lo egiteko aukera dago, baina ez dago atonduta. (Udaletxea: 945 30 40 06)

• *Existe la posibilidad de pernoctar en el frontón de Araia (cubierto), aunque no está acondicionado. (Ayto.: 945 30 40 06)*



